


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2004ko UZTAILA

Euskal AEko industri jarduera %6,5 hazi zen 2004ko uztailan

2004ko lehenengo zazpi hilabeteko bilakaerak %4,6ko hazkundea izan zuen, 2003ko aldi beraren aldean.

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2004ko uztailan, %6,5 hazi zen Euskal AEko industri produkzioaren urte arteko tasa. Balio homogeneotan, egutegiaren eragina zuzenduta, urte arteko aldakuntza %4,1era iritsi zen. 2004ko lehenengo zazpi hileko hazkunde metatua %4,6an kokatu zen balio absolututan, eta %3,4an balio homogeneotan.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1998-2004



(*) 2004ko uztailako urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: EUSTAT

2004ko uztailan, urte arteko aldakuntzarik positiboak, balio absolututan, sektore hauei egokitu zitzaizkien: *energia elektrikoa*, *gasa eta ura* (%25,2), *garraio-materiala* (%12,1), *zurgintza* (%10,5), *material elektrikoa* (%8,7), eta *makineria* (%8,1) arloei, besteak beste. Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan zituzten: *larruaren eta oinetakoen industria* (%-18,2), *bestelako manufakturak* (%-7,9) eta *metalezko eta ez-metalezko meak* (%-6,0) arloek, batik bat.

Urteko lehenengo zazpi hilabeteetan, aurreko urteko aldi beraren aldean, hazkunde-tasa handienak sektore hauei egokitu zitzaizkien: *energia elektrikoa*, *gasa eta ura* (%24,0), *petrolio fintzea* (%18,5), *material elektrikoa* (%9,0), *kautxua eta plastikoa* (%6,0) eta *garraio-materiala* (%5,2) arloei, besteak beste. Tasa negatiboak, berriz, honako hauek besterik ez zituzten izan: *larruaren eta oinetakoen industria* (%-18,9), *metalezko eta ez-metalezko meak* (%-12,3), *ez-metalezko industria* (%-12,1) eta *bestelako manufakturak* (%-5,9) arloek.

Helburu ekonomikoaren arabera ondaren sailkapenean, 2004ko uztailean, igo egin ziren *energiaren* urte arteko tasa (%17,1), *ekipo-ondasunena* (%7,6), *bitarteko ondasunena* (%5,9) eta *kontsumo-ondasun iraunkorra* (%2,3). *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorra* (%0,2) gutxiago igo zen eta ondorioz, *kontsumo-ondasunak*, osotara, %0,9 igo ziren.

Egutegiaren eragina zuzenduta, *energiaren* urte arteko tasa %16,4ra iritsi zen, *ekipo-ondasunena* %3,7ra eta *bitarteko-ondasunena* %2,8ra. *Kontsumo-ondasunak*, aldiz, %0,2 jaitsi ziren: *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* %0,0 eta *kontsumo-ondasun iraunkorrek* %0,5eko emaitzak lortu baitzituzten.

Urteko lehenengo zazpi hilabeteetan, balio absolututan, *energiak* %22,5eko hazkundera metatu zuen, *bitarteko ondasunak* %3,5ekoa, *ekipo-ondasunak* %2,9koa eta *kontsumo-ondasunak* %0,7koa. Azken horiek honela banatu ziren: *kontsumo-ondasun iraunkorrak* %1,6ra iritsi ziren eta *ez-iraunkorrak* %1,9ra.

Lurralde historikoka, Indize Orokorren urte arteko bilakaerek erritmo desberdinak izan zituzten; balio absolututan, %12,3 hazi zen Araban, %7,4 Bizkaian eta %2,3 Gipuzkoan. Urteko lehenengo zazpi hilabeteetan hazkunde metatuaren tasa handienak Arabak (%8,8) lortu zituen, ondoren Bizkaiak (%4,3) eta azkenik Gipuzkoak (%2,4).

Taula: 2004ko UZTAILA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	2004		2003	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	6,5	4,1	2,2	2,4
Araba	12,3	12,1	2,9	2,9
Bizkaia	7,4	4,1	-0,9	-0,3
Gipuzkoa	2,3	-0,4	5,3	5,1
Indizeak helburu ekonomikoka-Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	0,9	-0,2	-0,3	-0,4
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	2,3	-0,5	-4,0	-4,0
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	0,2	0,0	1,6	1,5
Ekipo-ondasunak	7,6	3,7	3,3	3,3
Bitarteko ondasunak	5,9	2,8	-0,4	-0,4
Energia	17,1	16,4	19,1	19,0

(*) egutegiaren eragina zuzenduta

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxa: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945 017 514. Faxa: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es